

PRENTSA OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoa sektorean aitzindaria den ingurumen-jasangarritasun plana aurkeztu du

- Bere karbono-aztarna (zeharkako emisioak barne) neurtzen eta ziurtatzen duen munduko lehendabiziko museoa da.
- Ekintza berritzaileen plan handinahi bat taxutu du askotariko arloetan, adibidez, energiaren kudeaketan, erakusketen programazioan edo programa publikoetan; era horretan, karbono-aztarna txikitu nahi da apurka-apurka, eta gure publikoa sentsibilizatu.
- Ingurumen-jasangarritasuna 2021-2023ko Plan Estrategikoaren konpromiso nagusietako bat da eta, ondorioz, Ingurumen Jasangarritasunerako Marko Estrategikoa sortu da, Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarriko 2030 Agendako helburuekin lerrokatua.

25. urteurrena ospatzearekin batera, Guggenheim Bilbao Museoa jasangarritasun-plan bat aurkeztu du, museoen sektorean aitzindaria. Plan horren bitartez, alaitz gehien gutxitu nahi du bere jardueraren ingurumen-inpaktua, energiari begira jasangarriak diren soluzioak eta kutsatzen ez duten prozesuak ezarriz; aldi berean, bere jardura ekoefizientziara lerratzea sustatuko du.

Hartara, Museoa, sortzen dituen zuzeneko emisioez gain, 2019an izandako zeharkako emisioen zati handi baten karbono-aztarna ere kalkulatu du: 4.313 tona izan dira guztira. Zeharkako emisioen kalkulari "3 irismena" deritzo, eta neurketa hori ezinbestekoa da eguneroko jardueran energia-efizientzia eta aurrezpen aukerak identifikatzeko. Munduan pauso hori eman duen lehendabiziko Museoa da. Museoa artelanen garraioak eta langileen joan-etorriek duten karbono-aztarna kalkulatu eta ziurtatu du, guztirako emisioen herena, hain zuzen. Egiaztapen hori dela eta, Museoa ekimen batzuk sendotu ditu, eta ekintza berriak ezarriko ditu erakusketak antolatzean baliatzen den energiaren eta lehengaien kontsumoa jaisteko, tartean direla hauexek:

- Artelanak paketatzeko alokairua lehenestea, kaxa berriak fabrikatu beharrean.
- Artelanen garraioa bestelako erakundeekin partekatzea, ontziratze esklusiboak alaitz gehien saihestea eta, ahal dela, gainbegiratze-lanak modu birtualean egitea pertsonen joan-etorriak ekiditeko.
- Horma berri gutxiago fabrikatzea eta erakusketetako eszenografiak berrerabiltzea edo egokitzea.
- Elementu museografikoak tokiko beste erakunde batzuekin, hala nola Bizkaikoa edo Bilbaoarte, partekatzea, adibidez, idulkiak, oinazpikoak edo erakusleihoak, horiek berrerabili ahal izateko.

Marko estrategikoa eta 2022ko Ekintza Plana

Ingurumen Iraunkortasunerako Jasangarritasunerako Marko Estrategikoa sortu da, Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako helburuekin lerrotatzen da.

Marko Estrategikoa martxan jartzen hastearekin batera, Gu-Zero taldea sortu da berriki, Museoko askotariko arloetan lan egiten duten pertsonen diziplinarteko lantaldea. Haren zeregina izango da Museoko askotariko arloetan lan egiten duten langileei jasangarritasunaren aldeko apustuaren berri eman, sensibilizatu eta inplikatzea, hobekuntzak eta aukerak identifikatzea, jasangarritasunaren urteko programan bildutako ekintzak bultzatzea eta haren jarraipena egitea.

2022rako Ekintza Planean, besteak beste, ekimen hauexek biltzen dira:

- 2022. urte honetarako Museoko **Erakusketen Programazioak** jardute-lerro bat du, ingurumenari buruz gogoeta egin eta sensibilizazio ekologikokoa sustatzen duena. Apirilean, *Motion. Autos, Art, Architecture* inauguratu da, XX. mendeko industriaren historia berrikusten duen erakusketa. Haren amaierako atala "Etorkizuneko aretoa" da eta, bertan, diseinuaren eta arkitekturaren munduko erreferentziako 15 unibertsitatek etorkizuneko mugikortasunaren erronkak landu dituzte, begiak berrikuntza jasangarrirako eta energia-trantsizioan jarrita. Gainera, Film & Video aretoko programazioak aro postkolonialeko klima-justiziariko buruzko auziak jorratzen bi erakusketa biltzen ditu: *Monira Al Qadiri: Laurden sakratua*, martxoan inauguratua, eta *The Otolith Goup: O Horizon*, ekainean irekiko dena.
- **Programa Publikoen** arloan, Museoa Mugikortasunaren etorkizunak mintegia ari da antolatzen EHU/UPVko Uda Ikastaroekin elkarlanean. Ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean, *Motion. Autos, Art, Architecture* erakusketa abian den bitartean, mintegiak Etorkizuneko aretoan protagonista diren unibertsitateak bilduko ditu, hurrengo hamarkadetako mugikortasunaren geroa aztertzeko. Gainera, Museoan "Uraren Ekologiak" nazioarteko sinposioa egingo da urrian, artisten, zientzialarien eta teknologoaren arteko dialogoa eta lankidetzaren sustatzeari begira, klima-aldaketaren eta hari lotutako erronken testuinguru orokorrean. Ekitaldiak gaur egungo ahotsik garrantzitsuenetako batzuk bilduko ditu Europar Batasunaren STARTS4Water ekimenarekin eta hura osatzen duten erakundeen partzuergoarekin elkarlanean.
- 2022an, Museoak 2021. ekitaldiko **karbono-aztarna neurtuko du**, enbalajeen eta elementu museografikoen zeharkako emisioak barne. Gainera, erakusketa baten (*Motion. Autos, Art, Architecture*) neurtzea osoa bilduko du lehendabiziko aldiz; bertan, zeharkako emisio guztiak hartuko dira kontuan, adibidez, artelanen eta autoen garraioa, enbalajeak, eta elementu museografikoak, hala nola hormak, idulkiak, oinazpikoak, erakuslehoak, pintura, testuak edo txartelak.
- **Energia-efizientziaren** arloan, Museoak aurreikusi du aurten argiztapen dinamikoko proiektu bati ekitea, sabai-leihoak irekitzeko eta Museoko hirugarren solairuko galerien jatorrizko eraketa berreskuratzeko balioko duena, eguzki-argia eta LED-argiztapen berriak era automatizatuan konbinatuz. Museoak

aurreikusi du, halaber, energia-konsumoa gutxitzen jarraitzea, eguzki-energia sortzeko panel fotovoltaikoak instalatuz.

- Azkenik, 2022an zehar, Museoak **emisioak konpentsatzeko plana** prestatuko du, hura sormen- eta hezkuntza-jarduera berriekin lotzeko aukerari arreta berezia jarrita.

Hastapenetatik, jasangarritasun-ibilbide bat

Egun aurkezten den ingurumen-jasangarritasunerako estrategia aurrerapauso handia den arren, Guggenheim Bilbao Museoa hasieratik dabil ingurumen-inpaktua murrizteko lanean eta, urteen joanean, askotariko ekimenak jarri ditu martxan, ondoren zerrendatuak:

- LED teknologia Museoko argiztapenean. 2015etik 2021era, Museoko argi guztiak LED teknologiarekin ordezkatu dira. Argiztapena aldatzean nabarmen murriztu da Museoaren karbono-aztarna; izan ere, era horretan saihestu egiten da urtean guztira 335 tona CO₂ atmosferara igortzea eta, gainera, % 25 aurreztea lortzen da, elektrizitate-konsumoa murriztu egin baita.
- Arazteko tratamendua. 2020tik aurrera, Museoa bere kanpoko kanpaina grafikoetan tratamendu berezi bat aplikatzen ari da, hiriko airea zuhaitzek egiten dutenaren antzera arazten laguntzen duena. Teknologia hori, fotokatalisiaren printzipio naturalean oinarritzen da, eta aplikatzen zaie hala erakusketak iragartzen dituzten kanpoko olan handiari nola Bilboko faroletan eskegitzen diren publizitate-banderatxoei eta tranbian jartzen diren biniloetan.
- Jeff Koonsen *Puppy*ren zaharberritzea. 2021eko azaroan, amaitu egin ziren *Puppy* lore-eskultura zaharberritzeko lanak. Horietan, barne-egiturako osagaiak ordezkatu eta konpondu dira, etorkizunean ezin hobe kontserba daitezten. Bada, ureztapen-sistema automatizatu egin da, eta euri-neurgailu digitala instalatu zaio artelanak uneoro behar duen uraren kontsumoa hoberentzeko; ondorioz, ura erantzukizunez erabiltzen da, eta aurreztu egiten da piezen mantentze-lanean.

Gainera, urte hauetan, Museoak ingurumen-garapena nabarmen hobetu duten ekintzak ezarri ditu bere eguneroko jardueran eta kudeaketan: bere instalazioak hobetu eta optimizatu ditu, hondakinak kontrolatu eta analizatu; ura efizientziaz kudeatu; hondakin geldoak biltegitatu, garraiatu eta tratatu; materialak eta enbalajeak murriztu; material birziklagarriak erabili eta bildu; hondakin arriskutsuak murriztu; edo material jasangarriagoak identifikatu, beste ekimen batzuen artean.

Bilbon, 2022ko apirilaren 29an